

Edorta Arana

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

## Gerontofobia

**D**onostiatik Bilborako bidea egin duen *El Sol* publizitate iberoamerikarraren jaialdi ospetsuan, aurrean eman diren sari nagusien artean, *Padres en slip* dago. Ikusi ez duenak zertaz ari garen jakin dezan: Saatchy & Saatchy publizitate agentziak eginiko spotean, beroa dela-eta, etxetik galtzontzilo hutsean ari diren gizonezkoek trufatzen dira. Burua soil eta tripa dauzkaten gizaki adineko horien gustu falta salatu, eta familiarikoen eta etxera datozenengan auzolotsa eta nolabaiteko nazka sorrarazten dutela agerian utziz. Zuri-beltzekoa eta musika klasiko dramatikoak apaindutako iragarkian, egoera umiliagarri horretatik libratzeko, proposatzen zaigu erostea airea egokitzeko elektragailu bat.

Horraino, iragarkiaren deskribapena. Eta, hemendik aurrera, publikoki onargariak ala arbuigarriak diren rolen trataerari buruzko iruzkinak. Eta nola hedabideetan, generoa, klasea, adina, arraza edota sexua estereotipatzen diren, eredu itxi eta baztertzailak erabiliz. Aipagai dugun publizitate pieza horretan, adina ageri da inposaketarako molde gisa.

Heldutasun falta ikaragarria erakusten duen gizartean, gutxituta dago adineko gizon emakumeen presentzia publikoa. Ez dira agertzen irizpidedun subjektu aktibo gisa



INIGO AZKONA

eta are gutxiago fisikoki erakargarri ala desiratu modura.

Gaztetasuna idolatratua dago gure artean. Eta gainera, edertasun eredu oso estuaren menpekoak gara. Gizon-emakumeen papearak oso markatuak dira, eremu publikoan eta pribatuan ere. Kontsumitzeko gai izatea eta askatasuna parekatu egin dira aspaldi honetan. Eta halako batean, iragarkian bezala, adineko gizon (emakume) horiek agertzen zaizkigu. Erakutsiz gustura daudela. Beraien gorputzaren jabe. Eroso sentituz. Errebindikatuz beraien joko-eremua. Etxekoa eta kalekoa. Eta esaten digute zimurren gainetik pertsona aktiboak eta positiboak direla. Eta, beraienak bezala, aldarrikatzen dituztela denontzako eskubide berberak.

Iraultzaile beterano horiek borrokan ari dira zahartzaroari beldurra eta sekula sekulorumerako gaztetasunaz obsesionatuta daudenen hobe beharrez. Adineko aktibistak dira desberdintasuna eta gure buruaz gustura egotearen poza errebindikatuz.

Gauzak dexente aldatu beharra dago oraindik ere adinekoak galtzontzilotan eta kulerotan normaltasunez agertu arte. Norberaren gorputzetik hasitako askatasuna lortu arte. Horra helduta, ez da behar izango elektratesna berririk "aire egokitu" ezin hobea disfruta dezagun guztiok. ■



«  
 Gauzak dexente aldatu  
 beharra dago oraindik  
 ere adinekoak  
 galtzontzilotan  
 eta kulerotan  
 normaltasunez  
 agertu arte  
 »

## TXANDAN

Castillo Suarez



Inoiz ez duzu sakelako modernorik izan. Beti esan izan diozu dendakoari merkeena nahi zenuela. Horrela, gainontzekoek telefono arina eta txikia zutenean zuk astuna; eta besteek kamera eta irratia zutenean zurearekin deiak besterik ezin zenitzakeen egin. Lagunak berehala hasi zitzaizkizun kekatzen Internetik ez zenuelako telefonoan: testu-mezuak bidaltzea garestia zen eta, jakina, gauza desfasatua. Twitterrean puri-purian zeuden gaiei buruz ezer ez zenekiela aitortzeak lotsa ematen zizun. Edo QR kode bat ezin deskodifikatzeak.

## Sarean eta lanean

Orduan erosi zenuen Interneta zeukan telefonoa. Orduan, ia ohartu gabe, luzatu zen zure lanaldia. Laneko mezuak desordutan erantzuten hasi zinen, baita larunbat eta igandean ere. Eta mesanotxean jartzten hasi zinen lotara joaterakoan, badaezpada. Oporretara ere zurekin eramane zenuen eta mezuak begiratzen zenituen, badaezpada hori ere. Eta ezabatu egin zenuen aisia eta lanaren arteko aldea. Egun batean, tiraderatan telefono zahar baten bila hasi zinen arte: ezer egin ez duen horietakoa; deiak egin eta jaso, besterik ez. ■

